

2021eko laugarren hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 4,3ko igoera izan zuten aurreko hiruhilekoarekin alderatuta

Inportazioen prezioek ere % 1,1eko igoera izan zuten

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko laugarren hiruhilekoan esportazioen prezioek % 4,3ko igoera izan zuten 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Konparazioa aurreko urteko hiruhileko berarekin egiten badugu, igoera % 11,4ra iritsi da.

Inportazioen prezioek ere antzeko joera agertu dute. Ildo horretan, % 1,1eko igoera izan dute aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 23,5ekoa 2020ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Esportazioen barruan, produktu energetikoen prezioek % 5,9ko igoera izan zuten 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta produktu ez-energetikoen prezioek, berriz, % 4,3ko igoera. Aurreko urteko hiruhileko berarekin (hots, 2020ko laugarrenarekin) alderatuta, ondasun energetikoen prezioek % 29,5eko igoera izan zuten, eta ondasun ez-energetikoen prezioek, berriz, % 11ko igoera.

Inportazioen kasuan, produktu energetikoen prezioen indizeak % 11,1eko jaitsiera izan zuen hiruhileko arteko tasan, eta produktu ez-energetikoen prezioen indizeak, berriz, % 4,8ko igoera. Urtetik urterako konparazioan, berriz, produktu energetikoen prezioek % 54,6ko igoera izan zuten, eta ez-energetikoen prezioek % 17,2koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2021/IV

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	4,3	11,4	1,1	23,5
Energiazko gaiak	5,9	29,5	-11,1	54,6
Energiazkoak ez diren gaiak	4,3	11,0	4,8	17,2
Kontsumo-ondasunak	2,6	5,4	10,6	15,7
Kapital-ondasunak	3,9	3,2	2,7	6,5
Bitarteko ondasunak	5,0	15,9	0,2	25,8

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2022ko Martxoaren 31a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen **helburu ekonomikoaren** arabera sailkapenari jarraikiz, azpimarratu beharra dago esportazioen prezio guztiek aurreko hiruhilekoaren aldean izan zuten igoera: bitarteko ondasunen prezioak % 5,0 igo ziren, kapital-ondasunenak % 3,9, eta kontsumo-ondasunenak, berriz, % 2,6. Egiaztatu denez, urtetik urtera ere igo egin ziren bitarteko ondasunen prezioak (% 15,9), kontsumo-ondasunenak (% 5,4) eta kapital-ondasunenak (% 3,2).

Inportazioei erreparatuta ikus daitekeenez, kontsumo-ondasunen prezioek gora egin zuten aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (% 10,6) zein urtetik urtera (% 15,7). Gauza bera gertatu zen beste bi ondasun motekin. Izan ere, kapital-ondasunen prezioek % 2,7ko igoera izan zuten aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 6,5eko igoera aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta. Bitarteko ondasunen kasuan, prezioen urtetik urterako igoera % 25,8era iritsi zen, baina igoera txikiagoa izan zen aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (% 0,2 baino ez).

Esportazioen xede diren **eremu ekonomikoak** kontuan hartuta, prezioek eremu guztietan egin zuten gora 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. EB-28an, % 4,9 igo ziren, ELGAn % 4,6, Eurogunean % 4,4, eta munduko gainerakoan, berriz, % 2,9. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta ere, joera antzekoa izan da: prezioek eremu ekonomiko guztietan egin zuten gora, eta azpimarratu beharra dago Euroguneko eta EB-28ko igoera (% 13,7 bi eremuetan). Gainerako eremuek ere tasa positiboak izan zituzten. Ildo horretan, ELGAko igoera-tasa % 12,4ra iritsi zen, eta munduko gainerakoan, berriz, % 6,7ko igoera izan zen.

Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2021/IV

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	4,3	11,4	1,1	23,5
Euro eremua	4,4	13,7	4,8	10,4
EB-28	4,9	13,7	4,3	11,3
ELGE	4,6	12,4	-1,5	19,1
Munduko besteak	2,9	6,7	8,4	35,7

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2022ko Martxoaren 31a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioen kasuan, prezioak eremu geografiko guztietan igo ziren aurreko hiruhilekoaren aldean, ELGAn izan ezik. Eremu horretan, % 1,5eko jaitsiera izan zuten prezioek. Igoerak antzekoak izan ziren Eurogunean (% 4,8) eta EB-28an (% 4,3), eta % 8,4ra iritsi zen munduko gainerakoan. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta ere, igoera-tasak erregistratu ziren eremu ekonomiko guztietan, eta bereziki handia izan zen munduko gainerakoan (% 35,7) eta ELGAn (% 19,1). Eremu horiek alderdi "energetikoaren" eragin handiagoa jasotzen dute.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62